

HERRIKO KONTSEILUAREN BILDUMA

2025eko URTARRILAREN 13a

Kontseilarien kopurua	15	Bi mila eta hogeita bosgarren urtean, urtarilaren hamahiruan, arratseko zortzi eta erdietan, Baigorriko Herriko Kontseilua bildu da, Herriko Etxean, jaun auzapezak deiturik. Dei hori 2025eko urtarilaren 07an afixatua izan zen eta 2025eko urtarilaren 07an posta elektronikoz igorria. Antton CURUTCHARRY bilkuraburu zen.
Hor zirenak	14	
Bozkatzailerak	15	

Hor zirenak: ARANGOITS Isabelle anderea, BIBES Jean Paul jauna, BIDART Betti jauna, CLAUZEL Sébastien jauna, COSCARAT Jean-Michel jauna, CURUTCHARRY Antton jauna, DEGUIRAUD Hélène anderea, DUPUY Maddalen anderea, HARISTOY Marie-Agnès anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, JUANTORENA Annie anderea, MOCHO Frantxoa jauna, MOUSQUES Bernadette anderea eta MERCAPIDE Sandrine anderea.

Ahalordea(k): OLCOMENDY Betti jaunak ahalordea emana zakon MOCHO Frantxoa jaunari

Bilkurako idazkaria izendatu da: BIBES Jean Paul jauna

Parte-hartzaileak errezibitu eta quoruma bazela egiaztatu ondotik, Bilkuraburuak proposatu du gai zerrenda hau aztertzea:

Aipagaiak

- Agence France Locale agentziako hartzedun batzuei bermeak ematea 2025. urterako
- US Nafarroak errugbi-zelaiaren argitzeko gastuetan parte hartzea – hitzarmen baten egitea
- Eginkizun anitzeko teknikari baten lanpostuaren aldatzea
- Inbestimendu gastuen ordaintzea jatorrizko aurrekontua bozkatu aitzin
- Gai orotarik

0. AITZINEKO BILKURAREN BILDUMAREN ONARTZEA

Gai zerrendako gaiak eztabaidatu aitzin, Herriko Kontseiluak 2024ko abenduaren 9ko bilkuraren bilduma onartu du.

1- 2025-1. DELIBEROA - AGENCE FRANCE LOCALE AGENTZIAKO HARTZEDUN BATZUEI BERMEAK EMATEA – 7.3 NOMENKLATURA

Herriko Kontseiluak:

Ikusirik Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorra, eta bereziki 1611-3-2 artikulua;

*Ikusirik Agence France Locale enpresako bi sozietateen estatutuak, eta kontuan harturik Agence France Locale agentziari lehen eskaerako berme autonomo bat emateko beharra Agence France Locale agentziako hartzedun batzuen probetxutan, **Baigorriko herriaren** zorraren mailan, **Baigorriko herriak** maileguak hartzeko Agence France Locale agentzian;*

2025 URTARRILAREN 13ko bilduma

Ikusirik Bermearen mekanismoa deskribatzen duen dokumentua, hots, data honetan indarrean den 2016-1 Modeloa;

Eta, deliberatu ondolan:

- **ERABAKI du *Baigorriko herriaren*** Bermea baldintza hauetan emanen zaiela Agence France Locale agentziak eman dokumentuen edo agirien jabeei (*hartzaileak*):
2025erako eman daitekeen bermearen zenbateko goren ***Baigorriko herriak*** 2025ean egin ditzakeen maileguren zenbateko gorenaren heinekoa da,

Bermearen gehieneko iraupena ***Baigorriko herriak*** 2025ean Agence France Locale agentziari egin mailegurik luzeenaren iraupenaren heinekoa da, gehi 45 egun.

Hartzaile bakoitzak Bermeaz helegiten ahalko du hartzaile baten edo batzuen ordezkari baimendu baten bidez edo Lurraldeko Sozietatearen bidez; eta

Bermeaz helegiten bada, ***Baigorriko herriak*** hitzematzen du galdatu zaion zenbatekoen ordaintzea 5 lan egun barne;

- auzapezak 2025. urterako eman Berme kopurua Agence France Locale agentzian hartu mailegu kopuruaren parekoa izanen da, jatorrizko erreferentziazko aurrekontuan idatzi kopuruaren neurrian, eta Berme bakoitzaren zenbateko goren *engaiamendu* agirian agertzen den zenbatekoaren parekoa izanen da;

- **BAIMENDU du** auzapeza edo haren ordezkaria, 2025ean ***Baigorriko herriak*** hartu berme *engaiamendua(k)* izenpetzera gorago finkatu baldintzen arabera,
Bermearen ezaugarri guztiak aurkezten dituzten eta eranskinetan diren modeloen arabera;

- **BAIMENDU du** jaun auzapeza erabaki honen plantan ezartzeko dokumentu oro izenpetzera.

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 14

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA:

ABSTENTZIOAK:

2- 2025-2. DELIBEROA - US NAFARROAK ERRUGBI ZELAIAREN ARGITZEKO GASTUETAN PARTE HARTZEA - HITZARMEN BATEN EGITEA - 7.10 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak biltzarrari jakinarazi dio herriak argiteria-obra egin dituela entrenatzeko errugbi-zelaian. Obra horiek **37 043.51 € (BEZa gabe)** kosta dute.

Jaun auzapezak oroitarazi du US Nafarroa elkarteak hitz eman duela 20 000 € ordaintzea. Horretarako, hitzarmen-proposamen bat finkatu da eta jaun auzapezak irakurri du.

Herriko Kontseiluak auzapezaren txostena entzun ondolan eta deliberatu ondolan,

- ONARTU du US Nafarroaren parte hartzea, hots, 20 000 €
- ONTZAT eman du atxikirik den hitzarmen-proiektua

2025 URTARRILAREN 13ko bilduma

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 14
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE: 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK: /

3- 2025-3. DELIBEROA - EGINKIZUN ANITZEKO TEKNIKARI BATEN LANPOSTUAREN ALDATZEA – 4.10 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak oroitarazi du 2021eko ekainaren 5eko deliberaren bidez, Herriko Kontseiluak onartu zuela Eginkizun Anitzeko Teknikari lanpostu iraunkorra sortzea denbora osoan.

Proposatu da delibero horren osatzea teknika laguntzaile eta 2. mailako teknika laguntzaile nagusi mailak elkartuz.

Lanpostuen taula honelakoa izanen da:

Lanpostua	Dagokion maila	Hierarkia saila(k):	Aurrekontu-kopurua	Asteko bana besteko denbora	Kontratatzearen oinarria enplegatua kontratupekoa baldin bada
Eginkizun anitzeko teknikaria	Teknika laguntzailea 2. mailako teknika laguntzailea 1. mailako teknikari laguntzaile nagusia	C	1	Denbora osoa	Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L. 332-8 2. artikulua

Lanpostu hau betetzen ahalko da:

- funtzionario bat hartuz Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.311-1 artikuluan finkatu printzipio orokorraren arabera, legezko baimen berezia ukanez salbu, departamenduetako, herriko etxeetako eta haien administrazio-erakunde publikoetako lanpostu zibil iraunkorrak funtzionarioek baitituzte betetzen,
- baimen berezi baten bidez, kontratupeko langile bat hartuz Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.332-8 2. artikuluko xedapenak aplikatuz, hauek kontratupeko langileak hartzeko parada ematen baitute lanpostu iraunkorretarako funtzio motek edo zerbitzuaren beharrek justifikatzen dutelarik eta ez baldin bada funtzionariorik hartu ahal izan edo mugikortasunaren kariatara edo konkurtsoetako saridunen artean.

Lan kontratuak hiru urterako hitzartzen dira gehienez eta kontratua berritu daiteke sei urterako gehienez.

Sei urte horien buruan kontratua luzatzen baldin bada, erabaki berezi baten bidez egiten da mugarik gabeko eperako.

Kontratupeko langile bat hartzen balitz, lanposturako 367 eta 420 arteko indize gordinari dagokion ordainsaria eman ahal izanen da.

Beharrez, lansariaren barne izanen dira 2024ko abenduaren 9ko Herriko Kontseiluak teknika-laguntzaileen lan alorrari doakien funtzionarioentzat finkatu funtzioei dagozkien lan alorrerako aurreikusitako primak eta ordainsariak.

2025 URTARRILAREN 13ko bilduma

Jaun auzapezaren azalpen osagarriak entzun ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak,

- ONTZAT eman du** lanpostuen taularen aldaketa
- BAIMENA eman dio** Jaun auzapezari erabaki honi doazkion dokumentu oro izenpetzeko,
- BAIMENA eman dio** jaun auzapezari atxikirik den lan kontratua izenpetzeko kontratupeko langile baten hartzea hautatzen balu kontratatze prozedura bukatzean,
- ZEHAZTU DU** kredituak aurreikusiak izanen direla kontu-aldian.

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 14
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK: /

4-2025-4. DELIBEROA- INBESTIMENDU GASTUEN ORDAINTZEA AURREKONTUA BOZKATU AITZIN- 7.1 NOMENKLATURA

Auzapezak biltzarrari oroitarazi dio Lurralde Elkargoen Kode Nagusiko L. 1612-1 artikulua arabera, Herriko Kontseiluak baimena emanik, auzapezak inbestimendu gastuak abiatzen eta kitatzen ahal dituela eta mandatua eman, aitzineko kontualdian ireki maileguen laurdenaren neurrian, hots, 250 331.00 €. Baimen hori beharrezkoa da urte hastapenean Herriak aurrekontua bozkatu aitzin inbestimendu gastuei buru egin behar dielarik.

Auzapezak biltzarrari jakinarazi dio beharrezko inbestimendu gastuak hauek direla:

- 114. op: Errepideen berritzeko obrak: 60 000.00 €
- 203. op: Material informatikoa: 3 500.00 €
- 205. op.: VVFeko bainugelen berritzea: 30 000.00 €

Zehaztu du dagozkion kredituak aurrekontuan idatziko direla.

Herriko Kontseiluak auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan,

BAIMENA eman dio auzapezari inbestimendu gastuak abiatzeko eta kitatzeko eta mandatua emateko, aitzineko kontualdian ireki maileguen laurdenaren neurrian, operazio hauetarako:

114. operazioa: errepideen berritzea: 60 000,00 € 2151 kontuan

203. operazioa: Material informatikoa: 3 5 00.00 € 2183 kontuan

205. op.: VVFeko bainugelen berritzea: 30 000.00 € 2132 kontuan

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 14
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE: 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK: /

AUZAPEZAK HARTU ERABAKIEN BILDUMA:

- 2024/12/23an kredituen biramendua

2025 URTARRILAREN 13ko bilduma

- 2024/12/23an erresalbuak berriz hartzea

GAI OROTARIK

/

Hor zirenen zerrenda:

ARANGOITS Isabelle anderea, BIBES Jean Paul jauna, BIDART Pierre *Betti* jauna, CLAUZEL Sébastien jauna, COSCARAT Jean-Michel jauna, CURUTCHARRY Antton jauna, DEGUIRAUD Hélène anderea, DUPUY Maddalen anderea, HARISTOY Marie-Agnès anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, JUANTORENA Annie anderea, MERCAPIDE Sandrine anderea, MOCHO Frantxoja jauna, MOUSQUES Bernadette anderea.

Bilkuran hartu deliberoak 1etik 4ra zenbakituak ziren.

<u>Auzapezaren izenpedura:</u>	<u>Bilkurako idazkariaren izendatzea:</u>